



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Mikel Gereka Zelaia
José María Alzuri Vertiz
Carmelo Ayoroa Hualde
María Izaskun Altxu Ariztegi
Javier Bereau Miquelarena

2016ko urtarrilaren 27an, 19:30an, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzten dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO 2 BILKUREKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dizkion deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 2 Bilkureko aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu dira aktak.

2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

1. G.G.H.ek lizentzia eskatu zuen, 20 metro karratuko portxea eraikitzeko *Iaulinborda* etxeko ekialdeko aldean. Obra hori lurzoru urbanizaezinean egin nahi da eta jarduera baimendutzat hartzen du, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 111.2 artikulua. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea H. andreari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 2.900 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 87,00 euro.

2. C.E.A.k lizentzia eskatu zuen, 15 metro karratuko egurtegi irekia jartzeko *Pioinea* etxeko garajeko paretari atxikia (burdinezko egitura eta txapazko teilatua). Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea E. jaunari, baldintza hauekin:

- Teilatuan teila jarri beharko luke, egurtegia herrigunean dagoelako eta Udal-araudiak hala eskatzen duelako (Eraikuntzako Ordenantza Orokorraren 52. eta 54. artikulua).

- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu obrak hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 425 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 12,75 euro. Kasu honetan obra egin dago eta ohartarazten dio Udalbatzak lizentzia lortu behar dela egin baino lehen.

Carmelo Ayoroa bilerara sartu da.

3. E.E.B.k lizentzia eskatu zuen, *Motzenea* etxeko baratzako pareta zati bat berregiteko, egurra jartzeko pareta horren gainean eta 6 metro karratuko txabola eraikitzeko, baratza tresnak gordetzeko (egurrezko egitura eta teilazko teilatua). Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea E. jaunari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen; aurrekontua idatzia edo fakturak aurkeztu beharko ditu Udaletxean, zerga hori likidatu ahal izateko.

4. M.R.S.S.ek lizentzia eskatu zuen, *Eguzkialdea* etxeko garajea teilaberritzeko, etxeko teilatuan egiten ari den obra aprobetxatuz. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea S. andreari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen; aurrekontua idatzia edo fakturak aurkeztu beharko ditu Udaletxean, zerga hori likidatu ahal izateko.

5. T.S.I.k, parrokiako erretorea, lizentzia eskatu zuen, teilaberritzeko obrak egiteko Elizako beheko aterpean, sakristian eta *Etxetxikia* izeneko etxebizitzan. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea S. jaunari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

ordaindu beharko du obra hasi baino lehen; aurrekontua idatzia edo fakturak aurkeztu beharko ditu Udaletxean, zerga hori likidatu ahal izateko.

6. M.M.E.k idatzia aurkeztu zuen, *Latxanea* etxeko teilatua eta fatxadak zaharberritzeko obrak hasteko epea luzatzeko eskatuz. 2015eko otsailaren 26ko Osoko Bilkuran eman zitzaion lizentzia. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da, obrak hasteko epea luzatzea beste urte baterako, lizentziaren baldintzak mantenduz.

7. P.M.Z.k lizentzia eskatu zuen, 10 metro karratuko txakurtegia eraikitzeke *Urtats* etxearen atzealdean (burdinezko egitura eta txapazko teilatua). Obra hori lurzoru urbanizaezinean egin nahi da eta jarduera baimendutzat hartzen du, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 111.2 artikulua. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea M. jaunari, baldintza hauekin:

- Teilatuan teila jarri beharko luke, Udal-araudiak hala eskatzen duelako (Eraikuntzako Ordenantza Orokorraren 52. eta 54. artikulua).

- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu obrak hasi baino lehen. Aurrekontua idatzia edo fakturak aurkeztu beharko ditu Udaletxean, zerga hori likidatu ahal izateko. Kasu honetan, obra egina dago eta ohartarazten dio Udalbatzak lizentzia lortu behar dela egin baino lehen.

Baldintza hauek bete behar dira puntu honetan baimendu diren obrak egiterakoan:

- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.
- Udal-araudiak jartzen duena bete.
- Hondakinen kudeatzaile baimendu bati entregatu obra hondakinak (23/2011 Foru Dekretua, martxoaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean eraikuntza eta eraispenetako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen dituena).
- Hirugarrenen eskubideak errespetatu.
- Eskatu den obra baino gehiago ez egitea. Espediente zigortzailea irekiko zaie lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

3. XEHETASUN AZTERLANA. 3 POLIGONOKO 22 PARTZELA (AURTITZ).

Aurtizko Auzoan dagoen 3 poligonoko 22 partzelako lerrokadurak eta sestrak aldatzeko xehetasun azterlana aurkeztu zuen T.E.L. jaunak. Hasierako onespina eman zion Udalbatzak 2015eko urriaren 29ko Osoko Bilkuran, espedientea jendaurrean egon da (2015-12-01eko NAO) eta ez da erreklamaziorik aurkeztu.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko 74 eta 76. artikuluei jarraituz, aho batez erabaki da:

1. Behin-betiko onestea 3 poligonoko 22 partzelako lerrokadurak eta sestrak aldatzeko xehetasun azterlana.

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki hau.

3. Onetsi den agiriaren kopia bat bidaltzea Nafarroako Gobernuari.

4. MOZIOAK.

1. ZF-TRW enpresa batzordearekin atxikimendua adierazi du Iturengo Udalbatzak.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola bilerara sartu da.

2. Ipar Atlantikoko Merkataritza eta Inbertsioaren Hitzarmena (TTIP ingelesez) aplikatzearen kontrako udal aitortpen hau onetsi da aho batez:

1. Iturengo udalerria, udalerriri intsumisioa eta TTIPen kontrakoa dela aitortzen dugu; halaber, oinarritzko zerbitzu publikoak elkartasunerako eta gizarte birbanaketarako defendatzen dugu.

2. Estatuko Gobernuaren Herri Administrazioen Ministerioari eskatzen diogu gizarterako onuragarriak diren zerbitzuek izaera publikoa mantentzea, helburu duten ekimen guztiei laguntzea. Hortaz gain, "Ley de racionalización y sostenibilidad de la administración local" delakoa, bertan behera uztea eta honen ordeztokiz tokiko ekonomiaren garapena sustatzen duen beste lege bat sortu.

3. Ekonomia Ministerioari eskatzen diogu TTIP eta TISAren negoziazioen galarazpena eta CETA ez berrestea.

4. Ekonomia Ministerioari eskatzen diogu TTIPen negoziazioak bertan behera uztea, hurrengo helburuak lortzeko:

- Akordio honekin izandako gardentasun falta buka dadila eta informazio osoa jendaurrean jartzea.
- Ez akordio honetan, ez beste akordio batean, ISDS bezalako mekanismorik ez egotea.
- Bai zerbitzu publikoak bai jabego intelektuala hitzarmenetik kanpo geratzea.
- Lobbyei, arau eta normalizazio prozesuetan (sozial, lan, osasun, ingurune edo beste gaietan) bai zuzenki baita zeharka ere parte hartzea debekatzea. Organismo publikoek, demokratikoak diren giza taldeekin, elkarrizketa ez diskriminatzaile egin diezaiekete.

5. Udal bezala, komertzio akordioen gaia (TTIP, CETA eta TISA) egokiak ikusiko ditugun metodoen bidez, zabaltzeko ardura hartzen dugu. (Adibidez, TTIPren kontra Ekimenak kanpaina honetarako prestatu duen materiala: idazkiak, triptikoa, komikia, denda eta tabernetan kokatzeko txartela, pegatina, logoarekin egindako kamisetak, banderak, hitzaldi eta mahai inguruak antolatu, herriaren sarreran akordioen kontrako txartela jarri,...)

6. Nafarroako parlamentuari eskatzea, gai honi buruz erreferendum bat antolatzea, gure bizitza nola antolatu nahi dugula, gure eskubidea delako.

7. Mozio honetan onartutakoa, Estatuko gobernuari, Nafarroako gobernuari, diputatuen kongresuko talde parlamentario guztiei baita Europar parlamentuko ere, bidaltzea, erregistratzeko eta horrela jakinaren gainean egoteko. Hortaz gain komunikabide guztiei eta bukatzeko TTIPren aurkako Ekimenari ere (ezttip.na@gmail.com).

3. Udalbatzak aho batez erabaki du eskualde osorako lanbide heziketa zentro integratu berri baten proiektuari atxikimendua ematea eta ondoko hau adieraztea:

- Eskualdean zerbitzu/baliabide hau berrantolatzeko premia dago. Nafarroan eratu berria den Gobernuak ere hala bilduta dauka bere Gobernu akordioan. Honekin gure eskualderako aukera berri bat zabaltzen da.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

- Eskualderako erreferentea izango dena, kokapen zentralizatu batean, euskalduna eta hezkuntza eskaintza berritua eta eskualdeko beharrei egokitzeko aukerak emango dituena.
- Prestakuntza reglatua eta ez reglatuaren aukera emango duena, gazte, heldu, langile eta langabetuentzako prestakuntza bat emango duena, goiz eta arratsaldean.
- Atxikimenduarekin batera Zentro Integratu berria bideratzeko prozesu honetan aktiboki parte hartzeko prest gaudela adierazten da.

5. ZENBAIT ESKAERA.

1. Aho batez erabaki da, 250 euroko diru-laguntza ematea Saharaztan Elkarteari, *Oporrak Bakean* proiekturako.

Mikel Gerekak ez du erabaki honean parte hartu.

2. Iturengo Pulunpa Ikastetxeko zuzendariak idatzia aurkeztu zuen, psikomotrizitateko materiala gordetzeko egokia izango den gela bat Udaletxeko ganbaran prestatzeko eskatuz. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da Inauterietako Batzordearekin adostea, ganbaran erabiltzen duten gelako zati bat egokitzea material hura gordetzeko.

3. P.J.A.A.k baimena eskatu zuen *Amezti*an erortzeko arriskuan zegoen arbol bat aprobetxatzeko. Mendizainak egindako balorazioa ikusi ondoren, aho batez erabaki da A. jaunari saltzea arbola, 57,60 eurotan.

Alkatea abstenitu egin da bozketan.

4. P.M.E.k baimena eskatu zuen *Mendaurreko* urtegiaren ondoan erortzeko arriskuan dagoen arbol bat aprobetxatzeko. Mendizainak egindako balorazioa ikusi ondoren, aho batez erabaki da M. jaunari saltzea arbola, 6 eurotan.

6. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen honen jakinaren ganean geratu da Udalbatza: 2016ko urtarrilaren 25ekoa, M.C.d.A.k jarri duen 15-03375 zenbakiko gora jotzeko errekursoaren berri hartu ondoren, espedientearen kopia Nafarroako Auzitegi Administratibora bidaltzea erabaki duena. Premiamendu probidentziaren aurka jarri du errekurtsua.

7. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Agiri hauen jakinaren ganean geratu da Udalbatza: Nafarroako Gobernuak eman dituen baimenak larreak erretzeko —I.B. eta L.M.ri—; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisisen emaitzak; Nafarroako Gobernuak eman duen baso-aprobetxamenduko baimena —B.U.i—; Nafarroako Gobernura bidali den baso-aprobetxamenduko baimen eskaera —J.M.F.rena—; 2016ko urtarrilaren 8ko Eskola Kontseiluko akta; 2715/2015 Ebazpenak, abenduaren 22koa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, Nafarroako toki entitateendako diru-laguntzen kontzesioa arautzen du, langabeak kontrata ditzaten interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko eta 3 langile kontratatzeko saiakera egingo du Iturengo Udalak.

2. Gasako obraren zuinketa akta egin zen 2015eko urriaren 26an eta Udalbatza, 2015eko azaroaren 25eko Bilkuran, irakurri da eta jakinaren ganean geratu zen. Obrako zuzendariak akta hura aldatu du ondoko hau zirrimarratuz zanga nola egingo den azaltzen duen puntuan: “*y los últimos 10 cm. todo uno, se extenderá el todo uno y el camino queda bien*”. Eta zirrimarratuaren ordez ondoko hau gehitu dio: “*+ capa tierra vegetal*”.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Iturengo Udalbatzak onartzen duen akta bakarra hasierakoa da, hori bai da onetsi eta sinatu zena. Akta aldatzea onetsi eta sinatu eta gero ez da zuzena, eta errespetu falta dela uste du Udalbatzak.

3. Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioiko kontselariarekin izandako bileraren berri eman du alkateak. Aho batez erabaki da Udalaren Plan Orokorra prestatzeko asmoa adieraztea. Lankidetzaren hitzarmena egitea eskatuko zaio Nafarroako Gobernuari, non Iturengo Udalaren Plan Orokorra prestatzeko prozesuaren abiapuntuak ezarriko diren, 145/2002 Foru Dekretuan ezarritako moduan. Hirigintza planeamendua prestatu eta aplikatzearen arloan, administrazioen arteko lankidetzaren arautzen du Foru Dekretu hark.

8. HERRIAREN TXANDA (GALDE-ESKEAK).

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 21:30a direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.